

**PROSTATAREN ONDESTE BIDEZKO BIOPSIA
BIOPSIA TRANSRECTAL DE PRÓSTATA**

Prostataren zati batzuk erauzte da prostataren ondeste bidezko biopsia egitearen helburua, analizatzeko; horri esker prostatako minbizia edo beste gaixotasunen bat ote den zehaztu daiteke.

Uzkitik zunda bat sartu eta orratz bat jartzen da bertan, eta prostatarantz bideratzen dugu. Horrela, ziztaden bidez, laginak lortzen ditugu.

GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK

Zundak eta biopsiaren orratzaren ziztadek eragindako molestia nabari daitezke.

Odola gernuan (hematuria), eginkarietan (erretorragia), edo semenean (hemospermia).

Pixa egiteko zailtasunak izatea, sukarra eta sabelpeko molestia.

Nekez bada ere, ingurune infekzioa, orokortua edo sepsia ager daiteke (azken hori oso arazo larria da eta bizia galtzeko arriskua ere badakar).

PROSTATAREN BIOPSIAREN OSTEKO ZAINKETAK

Prostataren biopsia egin ostean, zaindu beharra dago; beraz, honakoak hartu kontuan:

1. Biopsiaren ostean, ohikoa da odol pixka bat egotea gernuan, eginkarietan edo semenean. Egun gutxiren buruan berez konpontzen da. Odol asko isurtzen baduzu, joan ospitaleko Larrialdietarako Zerbitzura.
2. Mina baduzu, Nolotil® edo Termalgin® har dezakezu. Hobe da aspirina® ez hartzea hasierako egunetan, balitekeelako antiagreganteen ondorioz odol gehiago isurtzea.
Mina gero eta handiagoa mina edo 38°C-tik gorako sukarra baduzu, ospitaleko Larrialdietarako Zerbitzura joan zaitez.

BEREN BEREGI EMANDAKO BAIMENA

Praktika Kliniko Egokiak eta pazienteen eskubideen defentsa direla-eta, eskatzen dizugu idatziz adierazteko proba egiteko baimena ematen duzula. Beraz, proba egiteko eskatzen den egunean, Baimen Informatua emango dizute; eta hura sinatu ezean, ezingo da proba egin.

SEDAZIOA

Miaketan minik ez sentitzeko, **medikazio sedatzailea eta analgesikoa** emango dizute. Probaren ostean, gelan geratuko zara jakiak hartzeko moduan eta ondo egon arte.

Farmakoen eraginak ordu batzuetan irauten du eta erreflexuak aldaraz ditzake; beraz, jarraibide hauek bete behar dituzu **hurrengo 24 orduetan**: itzuli etxera heldu batek lagunduta; etxean atseden erlatiboa egin behar duzu; ez edan inolako edari alkoholdunik; ez gidatu.

La biopsia transrectal de próstata tiene como objetivo tomar varios fragmentos de la próstata para analizarlos y diferenciar el cáncer de próstata de otras enfermedades.

Se introduce una sonda por el ano, donde se coloca una aguja, que dirigimos a la próstata y de la que obtenemos muestras mediante varias punciones.

POSIBLES COMPLICACIONES

Molestias por la sonda y los pinchazos de la aguja de biopsia.

Sangre en la orina (hematuria), en las heces (rectorragia) o en el semen (hemospermia).

Dificultades para orinar, fiebre y molestias en el bajo vientre.

En raras ocasiones se puede producir infección local, generalizada o sepsis, siendo éste un problema muy grave y con riesgo vital.

CUIDADOS TRAS LA BIOPSIA DE PRÓSTATA

La biopsia de próstata requiere una vigilancia posterior, Ud. debe tener en cuenta:

1. Tras la biopsia es frecuente un pequeño sangrado que puede aparecer en orina, heces o semen. Se soluciona espontáneamente en pocos días; en caso de sangrado abundante dirijase al Servicio de Urgencias del hospital.
2. Si tiene dolor puede tomar Nolotil®, Termalgin®; es preferible no tomar aspirina® durante los primeros días ya que al ser antiagregante favorecería la aparición de sangrado.
Si el dolor fuera en aumento o si presenta fiebre por encima de 38°C debe acudir al Servicio de Urgencias del hospital.

AUTORIZACIÓN EXPRESA

Las buenas prácticas clínicas y la defensa de los derechos de los pacientes nos obligan a solicitarle por escrito una autorización formal para poder realizar la prueba. Por lo tanto el día de la solicitud de la prueba le será entregado un consentimiento informado sin cuya firma no podrá realizarse dicha prueba.

SEDACION

Para que la exploración no sea dolorosa se le administrará **medicación sedante y analgésica**. Tras la prueba permanecerá en una habitación hasta que tolere alimento y se encuentre bien.

Los efectos de estos fármacos se mantienen durante varias horas después de su administración y pueden alterar los reflejos, por ello **en las siguientes 24 h.** deberá cumplir las siguientes indicaciones: regrese al domicilio acompañado de un adulto, en casa deberá guardar reposo relativo, no beba ningún tipo de bebida alcohólica, no conduzca.